

ERRETRETEN ERREFORMAREN KONTRAKO GREBALARI ETA MOBILIZATUEN TOKIKO BATZORDEAK

Macron lehendakaria eta bere gobernuaren erretreta sistemaren desegite lanetan tematzen da : erretretara joateko adinaren gibelatzea 64 urteetara, 43 lan urte artinoko kotizazioen emendatzearen azelerazioa. Nehor engainatzen ez duten buxeta orekatze sasi arrazoiak aitzaki eramaiten du erreforma hori. Baina erreforma hunek denak kaltetuko gaitu, bereziki langile prekarioenak, lanean gaztetan hasi direnak, lan neketsuak dituztenak ala aldizkako karrerak. Gehiago lan egiterat behartuak izanen baitira (batzuetan legezko kotizazio iraupena gaindituz ere), beti apalagoa den erretreta batentzat.

Inflazioak populakuntzaren parte handi bat kaltetzen duen horretan, enpresen irabaziak eta akziodunen banakizunak exponentzialki hazten diren horretan, hamaikagarren atzerapen sozial hau ezin onartua da. **Horren gelditzeko batu eta antolatu behar dugu !**

Urtarrilaren 19ko mobilizazio egun intersindikalak, frantses gobernamentuarekiko indar harreman maila planteatu du. Ondoko manifestazio eguna itxoin gabe, martxoaren 31n iragaitekoa dena, bil gaiten tokian tokika, trukatzeko eta erretreten erreforma hunen kontrako kexua eta arbuioa garatuko duten ekintzak antolatuz. MEDEFak eta jabeek galdegiten duten erreforma baita Macronek eta bere gobernuak eramaiten dutena.

HITZORDUAK :

MAULEN : Orhi gelan, urtarrilaren 24an asteartearekin, 19:00etan

DONAPALEUN : Zerbitzu publikoen etxean, urtarrilaren 24an asteartearekin, 19:00etan

IZPURAN : Faustin Bentaberry gelan, urtarrilaren 25ean asteazkenarekin, 20:00etan